

Dirua, alabak, eleberriak

Balzacen maisulan hau astiro abiatzen da; baina berehala hasten da lauhazka, eta oinazturaren zalutasunaz amaitzen da.



Eleberria: Goriot zaharra
Honore de Balzac
Ibaizabal, 1996
341 orrialde, 1.710 pta (69 libera)

Markos Zapiain

HAUXE duzu aurkezpena, korapiloa eta bukaera betiko legez eskaintzen dizkiguten eleberrien artean ederrenetarikoa. 1819ko Paris, filusen eta petzeroen biltzar hura, diruzalekeriazko lupetza hura, sotiltasun gomutagarri margotzen digu, eta zenbait historia alegia eskaintzen dizkigu aldi berean. Mamia, ordea, pertsonaien pasioak dira, betikoak eta nonahikoak, eta artearen zein bizitzaren funtsa: amodioa eta heriotza.

Rastignac gazte handinahiaren begiez erakusten dizkigu Balzacek gertaerak. Rastignac zuzenbidea ikastera etorria da hegoaldeko Parisa; bere sendi apalak diru sakrifizio handia egin du semearen alde, kinka larrian gelditu da. Rastignacek bere xarmaz emakume aberatsak konkistatu eta goi mailako gizartean sartzea du xede, baina bidean pasioak sarritan ahanzarazi egingo dio xede hori...

Zernahi gisaz, eleberriko pasiorik harrigarriena Goriotena da, bere alabenganakoa: «aitatasunaren Kristo» deritzo Balzacek. Goriot, biziki maite zuen emazteaz aspaldi alargundua, Iraultza garaian fideogintzan pilaturiko dirutza, bihotza eta bizitza ematen dizkie alaba lakrikunei. Ordea, alabek ez diote inongo larderiarik ezagutzen, hastio dute aita. Are gehiago, eri eta txiro utzi dutelarik ere, geroz eta hotzago, bortizkiago eskatzen diote dirua eta desagertzea, aita deuseztatzeraino. Halaz ere, aitak ukorik guztizkoena eginga dio bere buruari, ez dute ala-

bek baizik bizi, beren txakurtxoa izan nahiko luke, altzoan lastan dezaten, fetitxista dute bihurtua: Goriot zaharrak, alaba Delphineek Rastignacen maripolisaren gainean zenbait malko isuri duela ikasi duelarik, etsirik baina fermuki maripolisa du galdatzen, bertan alaba usaindu, xurgatu, bereganatzearen.

Izan ere, pasio den heinean, Goriotena ere uherra da, eta anbigua. Irrika orok du alde iluna, jelsia da amodioaren egia: Alabenganako aitaren maitasunaren ifrentzua suhia da. Puta-seme galantak, oro har, suhiak. Ez baitira gai aitak alabengan kausitzen dituen xarma ezkiez era garbian gozatzeko, ez dute inongo eskuzabaltasunik emazteen akatsak barkatzeko. Halatan, Goriot zaharrak, suhiak paretik kentzearen, alabak amoranteen besoetara bultzatzen ditu.

Bestalde, irrika orok du hein batean ergeltzen: gogoaren zabala eta argia, jakin-mina, estutu eta motel du egiten du, maiteak bereganatzen baitu arreta osoa. Halaxe Goriot: alabez gainerakoak, berari bost. Alabek aseak berdintzen du bere gosea, pelikanoarena bezalaxe.

Horrexek gauzatzen du hasieran aipatu historia alegietako bat: Balzacentzat aita pasioaren mendean erortzen delarik, aitatasunari berez darion larderia galdu egiten du, eta sendia desegiten da. Erregearen eta gizartearen arteko harremanetan, berdin. Iraultzak aberastu zuen Goriot lotsagarri zaie alabei, aitaren aberastasunak goititu baditu ere sorkuraz ez zegokien gizarte goialde aristokratikora. Balzacen ustez, gizartearen aitak ere agindu egin behar du, sendo, jendailaren apetak eta umekeriak aintzat hartzeke. Horrexegatik zen legitimista, Iraultza aurreko monarkiaren oinordekoen aldekoa, Luis-Filipe errege burgesaren aurkakoa, erabat

kontserbadorea. Haatik, hain zen zolia gizarte arazoak eta diruaren garrantzia eta joan-jinak islatzeko orduan, ez baita harritzekoa Marxek *Kapitala* amaiturikoan Balzacen gaineko liburu bat idazteko asmoa azal zezan. Luze arituko zatekeen, ziur aski, gure eleberrian hainbeste nabarmentzen den Vautrin gaizkile, jeinu, azti, eta, gainera, zokoratuen buruzagi gogoangarriaz. GAL aferaren gaineko Interneteko orri batek Balzacen aipu bat du izenburu: «Gizakiak badoaz, gizarteak ere ahi-tu egiten dira; egitate bakarra da betiko: polizia». Nikola Agirre aittite gurea ertzain: imajina ezazue zelako xoka. Bada, *Giza Komedia*-ren beste eleberri batean, antzeko ezusteko, Vautrin polizia duzu bilakatua.

Goriot zaharraren amaiera itzela da, patetikoa bezain egiantzekoa: Gorioten azken solasek Shakespearereren unerik hunkigarrienak oroitarazten dituzte, Lear erregearenak oroz lehen: doinu zoro, oinazetu, arrotz, estrainio berdina. Halako gailurrak lortzeagatik, irudimena bizkortzeagatik, bidente bilakatzeagatik, azken batean bere eleberrien amoreagatik, Balzacek, Goriotek alabengatik bezala, bere burua sakrifikatu zuen: kafe katilukada anitzez eta anitzez zigortzen zuen gibela, bere burua egunean hogeitorduz idaztera behartuz. Gehiegikeriok ahiturik hil zen, buru-bularrak itsuski hanpatuak, berrogeita hamaika urte zituela. Hara zer den irudimena lar behartzea: Goriot Bianchon medikuntza ikasleak zaintzen du bere agonian. Bianchon Balzacen irudimenak sorturiko pertsonaia da. Bada, halaz ere, Balzacek berak, hilzorian, sendagile baten beharrean, Bianchoni eskatzen zion laguntza. Eleberri honi darion indar bereziak, Balzacen ametsen kemen suharrak, heriotza ekarri zioten ondorioz; ordainez, hark asmatu pertsonaiak lagun erreala baino erreala goak zaizkigu.

Ama Birjiñaren bizitza bertsotan eman du Justina Aldalurrek




Bertsoak: Ama Birjiñaren bizitza
Justina Aldalur
Sendoa, 1999
240 orrialde,
2.000 pta (80 libera)

MARIA JESUS DE AGREDA soriarrak

XVII. mendean Ama Birjiñaren bizitzari buruz idatzi zuen *Mística Ciudad de Dios* hitz lauzko liburua. Justina Aldalur aiar lekaimeak liburu hura hartu eta bertsotan eman du, jatorrizko liburuaren zatirik garrantzitsuenak errimatuz. 1.532 bertso osatu ditu liburu honetarako. Bertsoak baino lehen, kantatzeko doinuak agertzen dira liburuan, eta ondoren zortzi zatitan banatu ditu bertsoak Aldalurrek.

Dylan Thomas harrigarriaren itzultzaile aritu da Koro Navarro



Ipuina: Artistakume baten erretratua
Dylan Thomas
Alberdania, 1999
238 orrialde,
2.600 pta
(104 libera)

DYLAN THOMAS

galestar idazle handiaren lan ederrenetako bat da Koro Navarrok itzuli berri duen hau. Izan ere, liburuiko artistakumea Thomas bera da, bidea egiten hasi nahi baina ibiltzen ikasi berria denez une oro erortzeko zorian sentitzen dena. Autobiografia kutsua har dakieke alegia liburu honetako hamar ipuinetan kontatzen denari. Thomasek hain berezko zuen estilo ironiko eta umoretsuan emana dago.

begia@egunkaria.com

BERTSO HOP - BILINTX MEGADENDA



Colon Pasealekua, 8
20302 IRUN
Tel.: 943 631 726
Faxa: 943 635 489

www.jalgi.com/megadenda
E-mail: bertsohop-bilintx@jalgi.com

